

HUHEZIKO IRAKASLEA,
BERTSOLARIA ETA IDAZLEA

JON SARASUA

Euskararen ibilaldi herren honetan, euskalgintzako eragileengan nekea sumatzen dela aipatu da azken aldian. Aldi berean, positiboago, ziklo baten amaiera eta beste ziklo baten hasiera ere mintzagai izaten hasi da han eta hemen. Euskalgintzan “aro berria” hasteko garaia dela-eta, aro horren anuntzioa plazaratzeko gorputzaldian sumatu ditut nire hurbileko hainbat eragile.

Nahasiagi gaude abagunearen irakurketa komun xamar bat egiteko. Halakoxe fauna ere bagara, bestetik. Diagnostiko optimistak, astintzaileak, erasotzaileak, konplazienteak, agonikoak, ilusionatuak edo akituak gurutzatzen dira gure artean, gehienak arrazoiz nahiko ondo hornituak. Panorama honetan, aro berri bat aldarrikatzeak mota guztietako imintzioak sortuko ditu gure abere-etxalde honetako protagonisten muturretan.

Aro berria aipatzea hanpatuegia iruditzen zait. Ziklo baten amaiera-zantzuak badira, eta bestelako baldintza berri interesgarri batzuk ere bai. Bada ortzimugak marrazten hasteko beharrik. Abagunea izendatu eta bisualizatu dezagun, bada. Baina tentu pixka batekin, beroni formulazio puztuegia emateak hitzei sinisgarritasuna galaraziko lieke-eta. *Aro berria* baino formulazio doituagoa izan liteke beste hau: martxa aldaketa. Martxa aldaketa dagokio euskararen ibilbideari, datorkigun aroan.

Autoaren martxen kontu honek badu bere zera. Bigarren martxa sartuta bazoaz errepidean, eta zerbaitek esaten badizu erreboluzio dezente daramala, azeleragailuari sakatzen diozun guztirako gutxi aurreratzen du, kristalak

MARTXA ALDATZEAZ

dardarka, martxa horretan motorra erreko duzu. Beste engranaje-erlazio bat eskatzen ariko zaizu. Hurrengo martxak ere, jakina, ez du dena bertute izango. Indar berdinean gehiago aurreratzen du, baina potentzia galtzen, eta abiadura batetik behera hor hasiko zaizu eztulean. Auzi honetan, teoriak ez du balio, gidariari gorputzak esaten dio noiz eskatzen duen martxa aldaketa eta noiz ez. Igual aldapak ezetz esaten dizu, baina abiadurak baietz, eta datorren bihurguneak zalantzak sortzen dizkizu.

Etor gaitezen alegoriatik gure gaira. Euskararen ibilbidean bada ala ez da enbragea sakatu eta hurrengo martxa sartzeko unea? Bietarako zantzuak daude, baina baietz esateko arrazoi batzuk badira. Dena dela, autoaren martxa-aldaketaren metafora, modu konplexuan aplikatzea tokatzen dela esango nuke: gauza askotan, martxa luzeagoa jartzea komeni da orain; gauza ez gutxitan, martxari eustea; beste gutxi batzuetan, martxa laburragera pasatzea, potentzia irabaziz. Dena dela, eta sinplifikatzeko: bai, zapal dezagun enbragea.

BISIO KONTUAK

Uste dut euskararen gaian (garai honetan gizarteko beste gai batzuetan gertatzen ari zaigun bezala) etorkizun-ikuspegia, 'bisioa' deitu ohi den bisualizazio traktore hori, lausotua, krisian eta berritu gabe dugula azken urteotan, eta horrek estrategien ekoizpenean ere eragiten digula. Izan ere, estrategia bisioaren alaba da. Eta aldi berean, ekintza, programak, proiektuak, strategiaren seme-alabak. Baditugu elementuak (erakunde publikoak, gizarte ekimeneko euskalgintzaren sarea, esperientzia pilatua, pertsonak, energia) bisio eta estrategia horiek artikulatzen joateko, eta pentsatu nahi dut gai izango garela formulazio horietan aurreratzeko.

Hiztunpolisa liburuan, etorkizunari begira ditugun lan-ildo batzuk (ez derrigor garrantzitsuenak) aletzen saiatu ginen, artikulua honetan egin dezakeguna baino xehekiago, hustualdi handi xamarra izan zen, eta ez dut haiek orri hauetan laburtzeko gaitasunik. Berriki Gipuzkoako euskara teknikariei emandako formazio-solasaldi baten haritik tirako dut, sinplifikazio arriskua hartuz. Dena dela, bada zer birpentsatua eta berregina: a) hezkuntza arloko estrategiak, b) hedabide-esparruari dagozkion estrategiak, c) euskalgintzaren erakundetze mailakoak, d) kulturgintzako estrategiak, f) unibertsitate arloko estrategiak, g) administrazio-zerbitzuaren arloko helburu berriak, h) enpresen arloko estrategiak, i) corpusaren arloko norabideak, j) helduen euskalduntzearen ingurukoak, k) gizarte-aktibazioaren inguruko estrategiak, nagusietako batzuk izendatzearen.

Ezer baino lehen, galde genezake etorkizunera begira egin beharreko pauso horietatik zenbatek eskatzen duten akordio politiko berri bat, alderdien arteko lana; eta zenbatek aski duen egungo akordio maila. Honetan bietan kokatuko naiz afirmazio positiboaren aldean: egiteko ditugun gauzetako asko egungo tresna eta adostasunen barruan egin litezkeenak dira; eta tresna nahiz adostasun berriak behar dituzten gauzetarako, bai, badira koska horiek igotzeari begira adostasun berriak bultzatzeko baldintza politiko, sozial eta demolinguistikoak. Horretarako, pentsatzen, artikulatzen eta proposatzen gauzak ondo egin behar, jakina.

KOIUNTURA ANALISIRAKO

Euskararen biziberritze garaikidearen aroa sei hamarraldi betetzera doa, eta mundu

mailan kasu aipagarria da, hainbat zentzutan. Askok pentsa genezakeen sei hamarralditan Aizkorriko gailurrera iritsiko ginela, baina Urbiara iritsi gara, behelaino gandua dago, eta Aizkorriko tontorra ez da ikusten. Ziklo-neke bat badago, eta belaunaldi berriak gauzak egina jasotzera ohitu dira. Meritu handiko igoera izan da Urbiara artekoa. Belaunaldi honek eta datorrenak izango du beste modu batera, beste martxa batzuetan, igotzen jarraitzeko kemenik?

Euskararen lurralde-esparruetan koiuntura ezberdinak ditugu, aski estimulanteak. Iparraldean, politika publikoetan jauzitxo egiteko baldintza batzuk urratu dira, eta energia zibila, guztiaren oinarri dena baina beti mugatua, ez dago harrokerietarako. Hezkuntzak sortutako belaunaldi euskaldunei euskararen abenturan segitzeko esparruak irekitzea, eta energia zibila (bereziki gazteenena) desmobilizatuko ez duen politika publiko bat egiten asmatzea dute desafio.

Nafarroan, koiuntura instituzionalak hizkuntza politikari arnas berria eman diezaiokeen honetan, euskalgintza zibilak eta publikoak kontzientzia sakonagoa hartu dutela dirudi herrialdeko 'hiru herenen' egitate sozialaren aurrean. Konplexutasun horretan, helburuak birformulatzen eta diskurtsoak doitzen bada lana.

EAEn, azken urteetan egonkorrago dago joko-zelaia, baina armen inguruko zikloa amaitzeak bestelako egurats bat ekar dezake euskalgintzara eta gai honetarako akordio-aukeretara, oraindik aurreko zikloko inertzia kolateral batzuk sumatzen badira ere. Hizkuntza politikaren inguruan, galdera egokiak egiten hasi gaitzkeela dirudi, nahiz eta gauza askotan erantzun argirik ez den sumatzen momentuz.

Lurraldeak lurralde, sakoneko gauza batzuk berdina dira euskararen herri osoan. Hasteko, belaunaldi gazteenen atxikimendu modalitatearen aldaketa. Gizarte elebidun, hirueledun eta eleaniztun batean, hizkuntza mailako pluralismo liberal asimetrikoan bizi gara, hori da zapaltzen eta zapalduko dugun zoru ezinbestekoa: trama elebidun asimetrikoa, subordinaziozko zulo handiekin, eta hegemonia-gune (edo dentsitate-gune) funtzional saretu batzuekin. Luzerako doan koiuntura honetan, euskaraz bizitzeko hautu sendoa egiten duenak ez du hiritar estandar baten kondizio linguistiko bera: izan ere, euskaraz bizitzeko hautuak eskatzen du nahikunde bat, ahalegin bat. Eta

nahimen hori elikatu egiten da. Nahikunde hori elikatzea edo belaunaldi berrietan motibazioa erreproduzitzea da hiztun komunitate moduan dugun lantegi behinenetako bat datozen hamarraldietan.

Eta hemen gurutzatzen da belaunaldi gazteenek duten atxikimendu modalitatearen aldaketa erlatiboa. Batetik, belaunaldi berriek emanda jaso dituzte egungo egiturak, ez dira eraikuntza horren protagonista izan, eta beste ziklo batean daude. Bestetik, atxikimendu 'likidoagoaren' aroan hizkuntzarekiko lotura eta leialtasunak bestelako ezaugarriak dakartza, neurri batean. Eta hori kontrapuntuan dator euskararen bideak oraindik behar duen lan, atxikimendu eta nahikundearekin. Gizarte ekimeneko euskalgintzak, euskararen hauspoaren zati funtsezkoa den giza kapital antolatu horrek, badu zer pentsatua gai horretan.

Euskararen garapenak bi ikuspegi konbinatu behar ditu. Bata, gizarte ikuspegia, eta bestea, komunitate ikuspegia. Gizarte ikuspegiaren, trama elebidun baten kudeaketa demokratikoa egitea dagokigu, bizikidetzaren erdian jarrita, berdintasun eta askatasun printzipioak konbinatuz eta abar, nolabaiteko normalizazio baten bidean. Ikuspegi horrekin bakarrik, ordea, ez dira hizkuntzen dinamikak ez ulertzen eta ez gauzatzen. Hizkuntzak komunitate-dinamikak ere badira, eta biziberritzearen gako asko dimentsio horretan daude. Horrek gonbidatzen gaitu pentsatzera eta ekitera trinkotzeari buruz, hiztun osoak artikulatzeari buruz, motibazioa ekoizteko elementuei buruz, dentsitate-guneez, sorkuntzaz eta beste hainbat konturi buruz. Ez dute zertan elkarrekin talka egin bi ikuspegiok, baina biak konbinatu gabe ez dugu asko aurreratuko.

ENTRESAKA BAT

Zein dira hurrengo hamarraldietan egin behar dugunaren trazu handiak? 60ko hamarraldian, ikastolak, euskara batua eta ikastolak bultzatu baziren, 70ekoan helduen euskalduntzea eta 80koan telebista... Zein dira datorren hamarraldiko pauso berriak? Nola bisualizatzen dugu euskaldun izatea XXI. mendean, norbanakoaren ikuspegitik, gizartearen ikuspegitik eta komunitate-artikulazioaren ikuspegitik?

Bisioa eta estrategiak landu behar dira, arlo askotan fin harilkatu behar da, eta ez

dago dena "erabilera bultzatu" mantrarekin estaltzerik. Apropos gutxi aipatu dut artikulu honetan *erabilera* hitza, zeragatik: Pernaldoaren egia delako; ezagutzarekin, motibazioarekin, potentzia linguistikorekin eta beste gauza askorekin triangulatu ezean, *erabilera* aipamen antzua delako; eta hitzak gehiegi higatzeak alferkeria mentalerako bidea ematen duelako.

Datozen urteotan ditugun lan-ildoei begira, gorago zerrenda labur bat aipatu dut, eta ez dago hemen horiek garatzeko tarterik. Erakunde publikoetan, gizarte-ekimenekoetan, Euskararen Aholku Batzordean, euskalgintzako gogoeta guneetan eta abarretan, badago horretaz gogoeta egiteko aukerarik¹. Tarte labur honetan kontu batzuk aipatuko ditut, entresaka modura, ez nagusienak direlako gorago aipatutako *martxa aldaketa* horretan, baina bai beste batzuen artean nabarmendu nahi ditudalako (kasu batzuetan duten garrantziagatik, eta beste kasu batzuetan aipamen faltan ikusten ditudalako).

- Arlo sozioekonomikoan, jauzia antolatu. Enpresen unibertsoa lan-ildo sendo bihurtzera deitua dago². Ez du herri honek azken 30 urteotan hainbesteko inbertsioa egin hezkuntzan euskaldunak sortzen, gero enpresek euskaraz lan egiteko esparrua ez irekitzeko. Hogei urte inguruko esperientzia (mugatua, baina *pilotua* baino gehiago) badugu hainbat enpresetan. Hori egin duten beso teknikoek metodologia aldetik asko ikasi dute. Badakigu nola kudeatu hizkuntzak mota guztietako enpresetan. Orain jauzi bat egitea tokatzen da, handia, serioa, zabala. Jauzi horrek dimentsio tekniko bat badu, eta horretarako baditugu zumitza. Horrekin batera, jauziak eskatzen du artikulazio bat, beharbada inoizko handienetakoa. Hasteko indar 'euskalgileen' artikulazioa, enpresen unibertsoan jauzia egiteari begira: erkidegoetako gobernuak, aldundiak, udal sarea (neurri batean enpresen errotze lokala garrantzitsua baita honetan), Topagunea eta tokiko elkarteak, Kontseiluan bildutako euskalgintzaren sare osoa. Eta artikulazio horrek bultzatuta, enpresa elkarte, talde kooperatibo, sindikatu eta abarrak

1. Adibidez, "Eta hemendik aurrera zer?" dokumentua, EABk iaz onartua, edota Topalabea taldearen "Berrikasi eta berrikasi" lana horren adibide egokiak dira.

2. Gai honen lehentasuna hainbat ahotsek aipatu dute azken urteotan, eta adibiderik ezagunenetakoa Patxi Saez-en "Elefantea ikusi" artikulua izan da.

martxan jartzea. Hor badugu bisio oso bat sortzeko eta estrategia multzo bat eraikitzeko. Eta uste dut ez dela hemendik hamar urtera egitekoa, orain baizik.

- Hizkuntza-garapenaren lan-indarra ordenatu. Zeregin hau kontu 'minor' bat da, egia esan. Baina aurrekoarekin badu loturatxo bat. Euskararen garapen prozesu honen lan-indar profesionalak hainbat multzo osatzen ditu (udal teknikariak, gobernuetako teknikariak, aholkularitza enpresetako hizkuntza teknikari balioaniztunak, euskara elkarte eta kultur elkarteetako teknikariak, koordinazio guneetako langileak...). Lan-indar hori etorkizunean nola antolatu, hezi, finantzatu eta zaindu behar dugun, ez da galdera garrantzitsuena, baina bada egin beharreko galdera. Azken urteotan, halako nahasmendu bat bada zenbait zereginetan: deialdi bat ateratzen du erakunde batek, demagun udal batek, hizkuntza-prozesu bat martxan jartzeko, eta hor lehiatzen dira deialdi berean aholkularitza enpesak, euskalgintzako koordinazio-gune bat, aurrekoek osatutako kluster bat, unibertsitate bat... Ordenatu egin behar da erakundeen mapa eta egitekoa. Lanerako baldintza egokiak sortu. Eta bakoitza berera.

- Hedabideen esparrua birpentsatu. Euskararen hedabide-esparrua garatzea izan da azken bost hamarraldietako garapen-adarretako bat, eta hala izaten segituko du aurrerantzean ere. Orain arte egindako apustuak momentuarekin koherenteak izan zirela dirudi: telebista arloan telebista publiko baten monokultiboa, prentsaren arloan gizarte ekimeneko agerkeriei jokoa ematea eta abar. Esan beharrik ez dago panorama asko aldatu dela. Lodieneetik hasita, telebistaren espazioa birpentsatu beharra dago, eskualdeetako esparruak ematen duen potentziala arakaturik, kate-aukera berriak landuz, jokoa irekiz, eta apustu ausartak eginez. ETB bera zaintzeari uko egin gabe, telebistaren finantzabide publikoaren meloia irekitzea eta beste gauza asko eskatuko litzuzke. Horrek, jakina, akordio berriak eskatuko litzuzke, eta hasieran deserosoa izango litzateke EAEko erakundeak gidatu dituen kultura politikoa, aldaketa bat eta arrisku bat delako. Bestetik, euskal prentsan indartsua den sektore bati ere enbido konplexua botatzen dio. Euskal hedabideetako eragile garrantzitsu batzuen aldetik ezker abertzalearen grabitate indarraren barruan funtzionatzeari errotik uko egiten ez bazaio, euskararen hedabide-esparrua berregiteko

apustuak ez dira gertatuko. Aipatuko dira, baina ez dira gertatuko. Matraka emanda finantzabide oparoagoa lortzea bada helburua, bale. Baina euskararen hedabide-esparruan apustu berri sendoak egin nahi baditugu, aurreko ziklo politikoaren ajeak atzean utzi behar dira, lerro editorialen eta enpresen kontrola aldatu, kultura berri baten baitan, eta sentsibilitate politiko desberdinen aurrean sinesgarritasun osoa izango duen euskaltzaletasun transbertsala eraikitzen hasi³.

Hiru puntu hauek, esan bezala, entresaka txiki bat baizik ez dira, askoz zabalagoa den lan-ildo multzo baten baitan. Hirugarren aipatu dugun puntuak bide ematen digu azken gogoe-tarako. Orain arte bi eragile mota funtsezko izan ditu euskararen garapenak. Bata, gizarte ekimeneko erakunde edo gizarte-erakundeen multzoa. Bestea, erakunde publikoen multzoa. Badakigu tarte batzuetan talkak eta disfuncionaltasunak ere izan direla gizarte-erakundeetako sektore batzuen eta erakunde publikoen artean. Aro politiko honetan, erakunde publikoen legitimazio-deslegitimazio borroka baretu denez, aukera berriak sortu dira instituzioen lanean akordio hobeak, zabalagoak landu eta pauso berriak emateko. Bestetik, aro honek euskalgintzako gizarte-erakundeen multzoa ere jartzen du aukera eta eginbehar berri baten aurrean: euskararen aldeko mugimendu zibil irekia sortzea, doinu propio eta beregaina ekoitziko duena, doinu alderdikoi politikoetatik sakonki desberdina, sare zibil antolatutik gizarteari euskararen amets positiboaren deia sendo egingo diona, sinesgarritasun zeharkatzaile berri batetik.

Gizarte-ekimeneko euskalgintzak etxeko-lanak ondo egiten baditu, euskalgintzaren sarea horrelako doinu beregain batean ardatzen bada, bi hanka indartsu, orain arte baino indartsuago izango ditugu datozen hamarraldietako abentura honetan Urbiako lainopetik gora abiatzeko: erakunde publiko gero eta koordinatuagoak, eta euskararen gizarte-erakunde multzo eragileagoa. Dena beharko da, hala ere.

3. Ikus *Hiztunpolisa* liburuan, 310-338 orrialdeak.